

**BAT EGINGO DUT****1. Beldurrik ez!**

Gaitzizenak jarri, bultzatu, iraindu, iseka egin, informazio oso pertsonalak erakutsi Interneten, imintzioak egin edo jo: haur eta gazte askok eta askok halakoei aurre egin behar diete beren ikastetxean. Horrekin bukatzeko ardura izateaz gain, egiteko ahalmena ere badugu.

Halakoak jasaten ari direnak babestu eta defendatzeko modurik badago. Badira borrokarako prest dauden heroiak. **Aurrera egin, erabakia hartu eta eskola-jazarpenaren aurka egitea** besterik ez zaigu gelditzen.

Jarduera hau egin baino lehen, komenigarria da  **Kezkategia** jarduera egitea, giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

**HELBURUAK**

- Eskola-jazarpenari aurre egiteko estrategia batzuekin bat egitea.
- Eskola-jazarpenera geldiarazteko konprometitzea.

**GARAPENA**

Talde handian baliabideetan dagoen bideoa ikusiko dute. Bideo horretan, teknologia berrien bidezko jazarpenari aurre egiteko estrategia bat azaltzen da: zurrumurrurik ez zabaltzea.

Bideoa ikusi ondoren, eskola-jazarpenera geldiarazteko estrategia horri buruz eztabaidatuko da taldean.

Eztabaida gidatzeko galdera batzuk:

- Askotan gertatzen al da bideoan ikusten den jazarpen mota hori?
- Zein da bideoko mezua? Ados zaudete mezu horrekin?
- Zuen ustez, estrategia hori eraginkorra izan daiteke jazarpenaren aurka? Zergatik?
- Beste estrategiarik ezagutzen al duzue jazarpenari aurre egiteko?

*Eskola-jazarpenera* jardueran landutakoa gogoratzeko unea da. Jarduera hartan, eraso mota batzuk identifikatu zituzten ikasleek:

- Eraso fisikoak: gorputzaren aurkakoak (jotzea, bultzatzea) edo norbaiten gauzen aurkako ekintzak (gauzak puskatzea, lapurtzea, ezkutatzea)
- Ahozko erasoak: burla egitea, zurrumurruek zabaltzea, ezizenak jartzea...
- Eraso sozialak: taldetik kanpo uztea, baztertzea, kontuan ez hartzea...
- Eraso psikologikoak: mehatxuak, umiliatzea...
- Teknologia berrien bidezko erasoak



## ETA HARREMANAK ONAK EZ DIRENEAN?

Lau taldetan banatuko dira ikasleak. Talde bakoitzak jazarpen mota batean zentratuko da: erasoa deskribatu eta hari aurre egiteko estrategia bat diseinatu beharko du. Horretarako, baliabideetan agertzen den fitxa erabil daiteke.

Lana bukatu ondoren, beste taldeen aurrean aurkeztu beharko dute fitxan jasotakoa.

Fitxa horiek gelako horman edo korridoreetan jarriko dira.

*Eta harremanak onak ez direnean?* blokea osatzeko, hurrengo saioan *\*Gure dekalogo*a jarduera egingo dute.

### DENBORA

Saio bat

### BALIABIDEAK

- Bideoa: *Byte Face con Rubius*

<https://www.youtube.com/watch?v=pmhXBNgeC1I&feature=youtu.be>

- Eranskina: Jazarpenaren aurkako estrategiak